

A. DAMASO INTZA, A. OIEREGI ETA A. DONOSTIAREN MENDEURREN-OSPAKIZUNA

Larraun-Lekunberrin, Urriak 24, 1986

Fr. L. Villasante

Euskaltzainburuaren agurra

Jaun-Andreak: Ongi etorriak izan zaitezela ospakizun honetara!

Gure asmoa zen Aita Intza maiteari ehun urte betetzen zituenean omenaldi hau egitea; artean bera bizi zelarik, noski. Ez da hala izan. Egun guti falta zirenean joan zaigu. Goian bego. Edozein modutan ere, omenaldia berdin-berdin edo arrazoi gehiagorekin egiten diogu, eta bihotz-bihotzez egin ere. Goitik ikusiko du berak. Omenaldia egiteaz batera eskatu nahi diogu berari lagun diezaiola Akademia honi 66 urtez beronen partaide izan baitzen, eta lagun diezaiola orobat hainbeste maite izan zuen euskarari. Ez naiz hasiko haren bizitzako gorabehera eta lanak aipatzen, zeren Satrustegi jaunak hartu baitu beregain ardura hori.

Mendeurren-ospakizun hau beste birengana ere luzatzen da, hots, Aita Oieregi eta Aita Donostiarengana, eta horiei buruz ere txosten bana entzungo dugu.

Aita Kaputxinoak ziren, noski, gaur omendu nahi ditugun hiruak.

Benetan harrigarri eta aipagarria da Kaputxinoen Ordena honek euskal kulturaren alorrean egin duen lana. Hasteko, geron artean ditugu gaur hemen —eta luzaroko izan ditzagun—, Aita Ondarra eta Aita Yurre. Duela urte guti hil ziren Aita Polikarpo Iraizoz eta Aita Felipe Murieta-ko. 1979an omendu zituen Euskaltzaindiak Aita Arrigarai eta Aita Lezo.

Eta lehenago, 1960an, Bedoña olerkaria, apaiz ordenatu behar zen egunean berean hil zena. Baita Aita Adoaini ere oroigarri bat eskaini zion Euskaltzaindiak euskal predikari izan zen aldetik.

Eta halako omenik gabe joan direnak zenbat eta zenbat! Aita Bera, Aita Elizondo, Aita Ataun, Larrañaga, Ketzo, Soloeta-Dima, Maruri, Ayengizko Iñaki, Goikoetxea “Gaztelu”, etab. Iparraldean ere izan zen beste bat: Aita Blas Mendiondokoia; Hirugarren Ordenako Anaidientzat atera

zuen liburua estimu handitan zuen Lafitte jaunak, eta hala esan zidan berak behin baino gehiagotan.

Gure egunotan hazia ez da ihartu. Hasieran izendatu ditudanez gainera, hor da Zapirain "Ataño", hainbeste libururen egile jator eta joria.

Eta badakit, noski, izen bat baino gehiago, edo beharbada aunitz, utziko ditudala aipatu gabe neure ezjakintasunagatik edo guztiak kontutan hartzea ezina delako. Baina denentzat izan bedi gaur gure esker ona. Gehienak, ez denak, nafarrak dira, gainera, hemengo Kaputxino Ordenako Probintziaren seme.

Bai. Hunkigarria izan da zinez Probintzia honek euskal kulturari ekarri dion emaitza. Honelako uzta, ordea, ez da jasotzen eraintzarik gabe. Non, noiz eta nola izan ote zuen eraintza honek bere sorrera edo hasiera? Bila dezagun, jakingarria baita.

* * *

En atención a los que ignoran el euskara y hoy nos honran aquí con su presencia, voy a decir dos palabras en castellano. Trataba de indagar los orígenes o comienzos de esta impresionante aportación de la Orden Capuchina a la cultura vasca. Se lo oí referir al propio P. Intza (q.e.p.d.) y creo que interesa recordarlo en estos momentos.

Me contó, pues, el P. Inza que cuando él de muchacho se hallaba en el Colegio de los Capuchinos, recibieron un día la visita del P. Provincial. No recuerdo el nombre de éste, aunque seguramente el P. Ondarra lo podría precisar. Entre otras preguntas les hizo ésta: "¿Cuántos hay aquí que saben vascuence?" Empezaron a señalar a algunos. Pero en seguida surgieron entre los mismos chicos los comentarios: "¿Para qué sirve el vascuence, si entre ellos mismos no se entienden? Uno dice *aurrera*, otro *aitzina*, aquél *atzean*, éste *gibelean*, etc. etc."

A lo que el Provincial repuso: "Eso sucede porque no tienen escolarización. Que les compren a estos chicos la Gramática de Campión y la estudien; y que cada día tengan un recreo en que puedan hablar en vasco entre ellos. Necesitamos frailes que posean y cultiven el vasco para hacer el apostolado entre los euskaldunes, atender a la Tercera Orden, etc."

Como decía el P. Inza, aquel día fue la siembra de su vocación euskera, a la que se mantuvo fiel durante toda su vida, y creo que también la siembra para otros muchos que luego descollarían en este campo.

Pero ¿por qué silenciarlo? Desgraciadamente, las luchas políticas salpican lo que no debieran y a veces lo malogran todo. Aprendamos a no tropezar dos veces en la misma piedra.

La Academia siempre ha pensado que el euskera es un bien de Euskal Herria, un bien y un legado de todo el país, patrimonio común de todos, y que debe estar por lo mismo al margen y por encima de ideologías y opciones políticas. Así queremos que continúe y que nadie lo monopolice ni lo excluya.

Queremos aprovechar la ocasión de este homenaje que la Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia tributa a tres Capuchinos beneméritos, dos de los cuales son navarros, queremos aprovechar —decimos— esta ocasión para dirigir un ruego a las autoridades de Navarra y asimismo a la Provincia Capuchina. Un ruego para que la limpia ejecutoria de estos Capuchinos hoy homenajeados tenga una continuidad y para que su obra y su mensaje no sea ni se vea como factor de disgregación sino de unión y de enriquecimiento, como en realidad lo es, si se miran bien las cosas.

La solución de cualquier problema requiere un planteamiento previo correcto del mismo, sin el cual podríamos llegar a un impasse o a dar pasos aberrantes. Si ya desde los tiempos del Imperio Romano una parte considerable de los vascones —el llamado “ager Vasconum”— se romanizó, y, como consecuencia de este hecho, llegó a crear con el tiempo su peculiar romance, y la otra, en cambio —el “saltus Vasconum”— se mantuvo y sigue manteniéndose fiel al idioma ancestral, parece claro que la fórmula a adoptar es la de la convivencia de los dos idiomas sobre la base del respeto mutuo, y no la de que una de las lenguas engulla a la otra. El arbitrar un estatuto legal que asegure esto y haga efectiva esta convivencia pacífica y armónica es ya cosa que atañe a los hombres de gobierno, y la Academia hace votos para que se llegue a la tal fórmula, lo más justa que quepa dentro de las posibilidades reales.

Tampoco podemos olvidar que por una inconsciencia secular, desidia, falta de tradición literaria vasca, promoción unilateral del romance, etc., el euskara, no ya en tiempos del Imperio Romano, sino en siglos mucho más cercanos a nosotros, ha sufrido grandes retrocesos. Pero esto tampoco autorizaría el que ahora se quisiera hacer lo propio, pero en sentido opuesto.

Una visión serena, humanista y realista del problema parece que debe llevarnos a una convivencia en el respeto mutuo, en el intercambio y en el desarrollo armónico de ambas culturas y lenguas, que al fin y al cabo constituyen una riqueza del país, mientras que lo contrario significaría un empobrecimiento del mismo. Este es también el único camino

para superar resentimientos. Y no se olvide que esto de superar los resentimientos es algo esencial para que se dé una auténtica convivencia.

Creemos que ha llegado la hora en que sepamos verlo así todos. Que los hoy homenajeados nos ayuden desde arriba para que sepamos acertar en el camino. Unos y otros. Todos. Así sea.

AITA DAMASO INTZAKOA (1886-1986) GIZON, ELIZGIZON ETA EUSKALTZALE

Larraun-Lekunberrin, 1986-X-24

J.M. Satrustegi

Irailaren 21ean itzali zen Iruñean, azken urteotako babesleku izan duen Errotazaharreko komentuan, Aita Damaso Intzakoa, elizgizon eta euskaltzaina. Ehun urte, ilargialdi bat gutxi, iraun du mundu honetako bere ibilaldiak. Udazkeneko hogeita zortzi egun laburrengatik ez dio lagundu gorputz ahulduak ehun urte mugako helmugara iristen.

Hori dela eta, belarri elkortuen zirritu estutik nolabait zuzenean bere bihotzaren pozgarri eta bizi nahiaren pizgarri adierazi nahi nizkion hitz hauek; ezintasunaren penaz baina izpirituaren zabaltasunean, zoriontsu sumatzen dudan Jainkozaleari eskaintzen dizkiot gure artean.

Irriparre baketsuan ikusiko genuke orain, egoera berrian ikusterik balego, hain maite zuen Aralar mendiaren itzalean euskaltzaleok bera omentzeko batu garela jakinik. Izan ere, hau izan zen bere begien lehen ikuspegia, bide hauetan eman zituen lehen urratsak eta lurralde honetan ikasi zuen xuhur bizitzen. Ongi etorri denok Lekunberrira.

GIZONA

Izan berriak gara Araizko bailaran Migel Olasagarre jaio zen baserria ikusten. Malloa mendien horma bulartsuak hazi egiten dira bertara iristean.

Belardi hezea aurrean duela eta atzez orpoak mendian sarturik, inor gabe, hutsik dago "Kalparregi" baserria. Toki ospelean kokaturik, izotza izango du negu luzean estalki. Harri landuz eginak ditu lau ertzak, atea eta leiho inguruak. Ate buruko leiho gainean badu armarrria.

Zubieta baserriko nagusiak aditzera eman zigunez bidean, gazterik hasi zen Kalparregiko semearentzat gurutzebidea. Maisterrak omen ziren eta nagusiaren anaia bat Ameriketatik itzultzean kalean utzi zituzten etxezainak. Oinez joan omen ziren handik Madotz-a. Intzaren izena oho-
rez bete duen herriko semearentzat ez zegoen bertan tokirik.

Horrelako kontraesanez buruturiko bizia izan da berea. Adibidez, bederatzi urte zituenean begietako arazo batengatik eskola utzi behar izan zuen, predikari ospetsu, idazle eta akademilari izango zen gazte-
txoak. “Hiruzpalau lerro segidan ezin nituen irakurri”, aitortzen zuen berak.

Ehun urte-buruaren atalaga eskuetan zuela, bertan utzita joan zaigun gizonak osasun gutxi omen zuen gazte denboran. Behar bada horrexegatik egiaztatu da beragan, emakumeengatik esan ohi den hura: atso gaizkiak, betiereko bizia.

Denbora berean, eritasunaren berri duenak hobeki uler ditzake besteren gaitzak. Aita Damaso bezain aipatuak dira pertsona zaharrentzat berak erakutsitako erremedioak; “kalterik egiten ez duten gauzak, sanoak”, aspaldiko bezero hauen esanean. Nik neuk, txikitan etxean entzunez, elkarrekin lotuta daramatzat gizona eta bere ekintza hau. Halako edo beste halako belar eta zenbait bustialdi gomendatu ohi zituen. Inoiz botikarik.

Behin batean elkarrizketa bat ere izan nuen horretaz berarekin. Asko direla berak baliatutako belar erremedioak, erantzun zidan. Chilen, batez ere, ezin kontahalakoak zirela erremedio errazen bidez Jainkoak arindutako gaixotasunak, zioen harrokeriarik gabe. Badakigu, bestalde edozein garaitan joan ohi zitzaizkiola gorputzeko gaitzez jotako jende gaixoak.

Ez da hau, noski, berak aipaturiko gauza harrigarriak errepikatze-
koa eta lekua. Baina esan dezadan, badaezpada, historiaren eta berak zaindutako herriaren aurrean berezko erremedio arrunten bidez lortu zuen esker oneko aipamena.

Gizon apala zen eta ez zen inoiz harrotzen. Patxada baketsua da bere ezaugarri nagusia. Begi nini biziak asaldatzen baziren behin edo beste betazal haien zirritu txikietan, bertan amaituko zen desoreka guzia, haserrerik ezpagnetara edo mihira ekarri gabe.

Izpirituaren sosegua eta bakea izan dira bere biziko helburu nagusiak. Horregatik zioen bere sinestearen ildo sakonetik, etsaiak ez duela inoiz bakerik.

ELIZGIZONA

Intzako apaizak jaso zuen mutikoaren izpirituko sarats artean asmo berriaren erbia. Seminariora joan behar lukeela, aditzera eman zion belarrira egun batez.

Berak aitortzen zuenez, barre egin zuen hasieran.

—Nola egingo naiz apaiz, ahuntzaia naiz eta? -erantzun omen zion.

Bazen, hala ere, sakonagoko zerbeit mutiko koskorraren ezezkoan.

Herriko maisuak berak aitari hala gomendaturik utzi behar izan zuen eskola etaazienda zaintzen hasi, begietako arazo hura zela eta.

Nolanahi ere, ez zen azken hitza, harriduraren uste gabeko erantzuna baizik, eta Tuterara eraman zuten Kalparregiko Migel. Etxekoak utzi eta han aurkitu zituen lagunetan, anaia bezala izango zuen adiskide mina, gaur halabeharrez omenaldi berean goratarre egiten diogun aita Oieregi, azpimarra daiteke. Gutun batean aita Damasok dioenez, “apaizgorako ikastaroan biok elkarrekin giñan 1903-garretetik Muskarian hasita, Iruñian Meza emateraño 1910-garrenean. Urrengo urtean ere oraindik geroen ikastaroak Iruña-ko gure komentuan egin genituan”.

Adiskidantza honek bizi guzian iraungo zuen eta oso eraginkorra gertatu zen aita Damasoren euskal ekintzetan, gero esango dugunez.

Hizlari trebe eta misiolari kartsu agertu zen haste-hastetik, bere izena Euskal Herriko bazter guzietan oso aipatua zelarik elizgiroko esparruan, 36-eko gerrateak etendura sortu arte.

Gertakizun negargarri honetaz berak zioenez, ez zegoen aurrera jarraitzerik; bere adiskideen artean odola isurtzen ikusi zuen, “euskaldun bikainak eta adinik hoberenean hil zizkiguten batzuren batzu”.

Ordu ilunik izan zuen une hartan. Altsasuko komentutik Urbasa mendiko leze tamalgarriaren aurrera eraman zuten gau batez, bertan desagertuko ziren gizonei azken sakramentuak ematera. Lekukotasun beltzaren mezu eskergarriak jaso zuen familia gaixoentzat.

Baina gero eta zailago bihurtzen ari zen euskaltzaleentzat hemengo egoera. Nagusiengandik gaizki ikusiak ziren pozointsutzat baitzeukaten hauen lana, eta erbesteko bidea hartu zuten Euskal Herriko seme hoberenek.

Aita Damaso maister eta arrotz bere herrian, noizbait Kalparregi baserritik oinez atera zenean bezala, Chile-ra bialdu zuten bere nagusiek.

Giza-eragozpen guziak baino haundiagoa da Jainkozaleentzat sinesmenaren indarra eta bigarren aberritzat hartu zuen erbesteak eskaintzen ziona. Denbora berean, aintzakotzat hartu zuten bertakoek misiolariaren lana eta seme kuttun izendatu zuten agintariek.

1956-an egin zuen bidaian ezagutu nuen bere bihotzeko Aralar mendian. Gaztea nintzen baina gogoan ditut bere hitzak pergamu agiri zaharretako aholku sakratuak bezala. Hainbeste aldiz entzuna nuen etxean aita Damasoren izena! Ahorik ireki gabe egon nintzen entzuten. Jasota daukat nonbait orduan elkarrekin ateratako argazkia.

Oporren ondoren bakoitza bere bidean joan eta itsaso zabalaren urruntasun isilak iretsi zituen aita Damasoren berriak.

1986eko udaberrian jakin genuen etorri zela ez berriz itzultzeko eta geroztik ikusi izan dudan bakoitzean Zurbaranen koadroetatik ihes egin-dako pertsonaia iduritzen zitzaidan. Benetan, frantziskotar eredugarri baten izpiritu lotura-gabea zerion argi gutxiko begirada garbiari.

EUSKALTZALEA

Artean inork esan ez zidan zerbait jaso nuen Aralar mendiko elkar-
rriketan lehen erantzuna eman niolarik: aspaldi entzuten ez zuen euskara ederra omen zela nerean.

Zoritxarrez, geure euskararen estimu gutxi nuen nik artean. Ez nuen inoiz entzuna euskara ederrik bazenik, Tolosakoa ezik. Zigorrak, mehatxuek eta inguru giro txarrak ongi hustua zidaten, neu konturatu gabe, euskal gauzenganako gogoa.

Aita Damasok oso ongi zekien, noski, euskaldunon gazte-aroko krisialdien berri. Ikastaroak hastean Tuterara eraman zuen apaiz euskaldun eta euskaltzaleak, joan aurretik gomendio hau egin zion: “Han zauden bitartean euskara ez ahaztu”. Kalparregiko semeak ez zuen apaiz jatorraren esanik bete eta zenbait urteren buruan berriz euskaraz hitz egiten hasteko agindu behar izan zion.

Mintzairarekiko etena mingarriago gertatu zitzaion erdaraz ez zekien bere amaren aurrean. Zenbait urteren buruan ikustera joan zitzaionean, Migelek galdua zuen euskara eta ama-semeeek ezin zuten inolaz elkar ulertu. Herritik joandako neskak baten bidez jakin zuten elkarren berri. Negar malkoetan irten zen amaren nahigabe samina.

Horrela esnatu zen mutiko koskorren euskal kontzientzia eta zinez erabaki zuen euskara ikastea, ez zekion berriz horrelakorik gerta.

Sortetxean arrotz eta Euskal Herrian bazterturik gelditzea aski ez zela, euskal sena eta euskara bera galtzerainoko legortea jasan behar izan zuen bizian. Erraz esaten da.

Barruan ausnartuz joan nintzen ni ere mendi gailurrean entzundako hitzak, eta denborarekin eragin sakona izan zuten nere bizian.

Oroitzapen pertsonala baino zerbait gehiago dela esango nuke gaur, nere gazte denborako gertakari xumea. Hazi onaren ereile izan zen aita Damaso, bere lagunekin, hain gutxi landuta zegoen euskararen arloan.

Ereintza txalogarri honen lehen hazia 1911an jalgi zen kanpora. Kataluniako kaputxinoek argitaratutako aldizkaritxo bat jaso zuen behin

aita Oieretik eta bihotzeko odola irakiten jarri omen zitzaion, aita Damasok zioenez. Horrelako zerbait Euskal Herrian egiteko nahia agertu zion berehala bere lagun minari.

—“Zaude ixilik” —ihardetsi zion harriturik araztarrak. Gu ez gara gauza holako bat egiteko...”

Aita Buenaventura ez zatekeen bere aburuei arinki uko egiteko euskalduna eta, hain zuzen ere, Katalunia aldean ikastaroak eginak zituen Ziurrizko aita Ildefonso, probintzia honetako buru zenarengana jo zuen berehala. Aurkezpenaren arrazoimendua ezin zen zehatzagoa izan: euskaldun hirugarrenen ez zutela orritxo bat ere euren hizkuntzan Frantzisko santuaren nahiz frantziskotar anaidiaren berri jasotzeko. Eskuarteko orri haien antzeko zerbait egin zezaketela berek ere.

Nagusia erantzuna, Egiptoko gosetean Joserekin gertatuaren antzera, erabagikorra izan zen: —“Aita Damasoari esaiozu, bera izan dedillela euskal orri horren zuzendari”.

Txinurri-lana irudi du negu gogorrari begira, zortzi orrialdeko argitalpen xume harenak; baina esku zabalak banaketa itzaropentsua, uzta eder baten algorio bihurtu zen gero. *Irugarrengo Prantziskotarra* (1913-1936) Euskal Herriko sei mila sukaldetara iristen zen azken aldian.

Ereileak ez du sosegurik egindako lanean eta emaitza berrien ametsak bultzatzen du lur berriak lantzerantz. Frantziskotarren anaia txikiak Gaztelanian plazaratzen zuten *Mensajero Seráfico* aldizkaria ereduzat harturik, aita Oieretik datorkio, berriz ere, asmo berriaren mezulari: —“Guk onen antzeko bat, baño au baño ohea, egin bear dugu...”

—“Jainkoaren izenean zoaz emendik”, erantzun zion Intzako semeak, “naiko dugu lengoarekin...”

Bi gizon hauen hika-mika baikorra eten gabeko elkartasunean! “Aita Buenaventura setosoa zen, bere asmo onetan iraunkorra”, zioen bere adiskideagatik 70 urteren buruan. Aita Oieretik gora jo zuen eta berriz ere baimena lortu:

—“Zoaz bada aita Damasorengana”, agindu zion nagusiak, “eta esaiozu nere borondatea dela eta bertatik bera izan dadila aren zuzendari”.

Horrela sortu zen 1919ko urte hasieran *Zeruko Argia* hileroko euskal aldizkaria (1919-1936). Astekari bihurturik eta zerukoaren izena eta kutsua galdurik, bizirik dirau bi euskaltzale ospetsuen nekeetako emaitzak.

Baina baserriko seme jator batek ez du inoiz neguko ereintza beltzogatik, udazkeneko bilteta pozgarria baztertzen. Herriz-herriz zebilen bitartean *esaera-zaharrak* biltzen zituen. “Lenengo saila Euskaltzaindiaren aldizkarian argitaratzeko ematean, ez nuen uste esaera-zarren belar ontan-

tik dagoen bezin usu zegoanik”, aitortzen du pozez beterik. “Sei ilabetere buruko emen natorkizute, beste belar txorta, lengoak baño ere urrin gozatsuagoa duena zuei guzoi eskeintzeko asmotan. Eta esaera-zar auk guziak edo geienak, Naparroa-alde ontan erain ditudan azi bakar batzuek ekarri dituztenak dira, eta apaiz jaunen baraztetan bilduak ala ere”. (**Euskera**, 1927, 141.or.)

Euskera (1927-1928) eta *Zeruko Argian*, batez ere, plazaratzen joandako esamesak, ia berrogeita hamar urteren buruan, *Naparroako Euskal-esaera zarrak* izeneko liburuan bildu zituen 1974ean.

Herri xumearen eskola zaharra hartu zuen aita Damasok eredutzat eta bidez-bide ibili zen geroztik ondasun horren bila. “Zertako artzen nituan alako nekeak esaten zidaten askok. Baño pitxirik ederrenak itxasoaren errailetan izkutatzen diran bezala, esanerarik politenak gure erritarren ezpañetan arkitzen dirala dakigunak, ezeretzat ematen ditugu gure neke guziak, zerpait berri arkitzen dugunean”. (**Euskera**, 1921, II,5.or.)

Aditza izan zen aita Intzak euskararen alorrean aurkitu zuen bigarren altxorra. Aberatsa bazen ere beretzat esaera zaharren esparrua, aditza zuen denen gainetik estimatzen: “Txorotako artu naute gure erritar batzuek. Baño gure erritar auk ez dakite *euskal izkuntza arrigarria ba-da... aditza edo berboa dala bere galdorra ta bere goragarria, aditzean agertzen bai dittu (euskerak) bere aunditasuna ta bere baztar gabeko aberastasanak*. Onela zion Intxauspe Apaiz jaunak, eta darraikio: (euskerazko aditza) *bat bakarra da ta au da berezko edergarri aundienetakoa, bere bakartasunean ordea, ain aundia, ain emakoia, ain aberatsa, ain abarra da! Beste izkuntza guzien gañetik dago, gure basoetako aritzak beren adar aundien azpian sortzen diran landaretxoen gañetik dauden bezala*” (Ibid.)

Ez da harritzekoa, beraz, Euskaltzaindiko sarrera-hitzaldia 1921eko urtarrilaren 27an gai honetaz egitea. Honela dio bere aurkezpenaren izenburu gogoangarriak:

NAPAÑO'KO ADITZ-LAGUNTZALEA ZUKETAZKO ESAKERAN

1921'EKO ILBELTZAREN 27'AN. ELIZONDO'KO AUZO-ETXEAN

EUSKALTZAINDIAN SARTZEKO EGUNEAN

INTZA'R DAMASO AN. BURUÑURDUNAK IRAKUÑITAKO LANA

Aditzari buruz egindako bigarren lana, “Burundako euskalkia” aztertzen duena da. (**Euskera** (1922) III, 3-42.or.) L.L. Bonaparte eta Campionek esanaren aurka, Burundako euskalkia ez dela Gipuzkoa aldekoa, “ezta orren aide urbill-urbilla ere” frogatzen du.

Aipaturiko aldizkarietan idatzitako lanez bestalde, honako hauek azpimarra ditzakegu:

Martin zintzoa. Euskal Esnalea aldizkariak saritutako ipuia. 1913ko urtarrileko zenbakian argitaratua.

Ordikeriaren kalteazkoak. (1916). Lehenik *Euskal Esnalea*-n eta gero I. Lopez Mendizabal-en *Euzkel-Egutegia*-n argitaratua.

Kristau Ikasbidea. Mateo Mujika. Iruñeko gotzaiaren aginduz Astete-ren dotrina Nafarroako haurrentzat itzuli zuen.

Kristau Ikas-bidearen I-ko ta II-garren zatiaren azalpena: (1924) *Xabierko Frantzisko santuaren bederatziruena.*

Giza Biziaz. “*Humanae Vitae*”, Paulo VI-garren Aita Santuak emandako enziklikaren itzulpena (Iruñea, 1968).

Adoingo Esteban doatsuaren bizia.

Zoritxarrez bere gordailua eskuarteko paperekin Chileko bizitegia kiskali zuen sutean desagertu zen.

Niregana nola etorria den ez dakidala “ARALAR” izeneko antzerki argitaragabea aurkitu dut aita Damasoren gutun bilduman. “Zuazu (Iza-gaondo)ko Piramuelles’tar Armando apaizak 1928an egiña”, dio azalean. Erdaraz egingo zuen, noski, eta arkatzez hau dio gero: “*Ar’tar A’k euskeraztua*”.

Ezizen honen babesean nor estaltzen den jakiteko, Prahako N. Tauer jaunari idatzitako gutun batera jo dut. Honela zioen, besteak beste, Damaso aitak Altsasutik 1956eko abenduaren 5ean: “*Zeruko Argia*-n, Jesukristoren bizitza ematen asia nauzu, eta beste zenbait sailtxo, emen naizen artean, berortan azalduko dira, *Ar’tar A.*, ta *Irumugarrieta* izenordekoaz”. *Kalparregi*, bere sortetxearen izena ere baliatu izan zuen gerra aurrean izenordekotzat.

Gutun horretan bertan beste idazlan baten berri ematen dio atzerriko adiskideari: “*RIEV* zalako hartan, bein bakarrik naski. Nafarroan bildutako euskal itz sail polit bat”, ere argitaratu zuela alegia.

Neuk dudan antzerkiaren orijinalera itzuliz, azalean hau dio: “*Atzalburu. Mikel Deuna ta euskaldunak.* Iru egintzetan azaltzen dan ikuskaia”. Navarro Villoslada-ren *Amaya* nobelan oinarritutako lana da.

Adinak gorputza makaldu bazion ere ez zuen bere izpiritua oso berandu arte moteldu. Hazi onaren ereile jarraitzeko asmoa agertzen du gutunetan. Bere bi amodio nagusiak, sinesmena eta euskara, txandaka doaz itsaso haundiaren alde bietan. Chilera itzultzeko asmoa agertzen du elizgizonen behar gorria ikusten baitu, “eta bein an, sortzen zaigun lanak eztingu betarik ematen gure izkuntzaren alde ezer egiteko, edo oso gutxi beintzat”. Bat-batean, hala ere, gutuna Euskal Herrian idatzia dela konturatzaren gara: “Zure eskutitz au bai ongi eldu zaidala gure euskaldun

alperrei ta alper-izkuntza bezala begiraten dutenei, beren ez jakin lotsagarria aurpegira botatzeko ta nor edo nor esnarazteko”, erantzun zion 1956an Prahako euskaltzaleari.

EUSKARAREN ADISKIDEAK

Intzako Damaso aitak euskararen alde Nafarroan egindako lanaren garrantzia oso murrizt gera daiteke zabalkunde-eragin haundia izan zuen ekintza aipatzen ez badut. Euskaltzaindiaren Jagon sailari dagokion gauza da: Herri mailan euskararen aldeko kezka eta zaletasuna sortzeko “Euskeraren adiskideak” izeneko elkargoa sortu zuen 1925ean.

Ez zen gauza erraza. Honela laburtzen du berak une hartako egoera politikoa: “Nafarroan garai artan giro txar-samarra zegoan euskerarentzat, naiz aipatu dudan egunariak eta TRADICION NAVARRA egunariak zer edo zer egin. Orduntxe edatzen asi-berria zan Aberzaletasuna. Eta Abertzale ta Karlistak elkar ezin ikusiz zebiltzen eta Naparro geiena orduan Karlista zan. Argatik euskeraren alde lan egiten gendunak aberzalekeriz ari ote giñan...

Iruditu ori kentzeko, Karlistak izan arren euskera aintzat artzen zuenak billatu nituan asiera emateko eta kezka gabe lanean asteko. Euskal-jai aietan nor eta nor ziran buru, izlari ta laguntzalle ikustean, pixkanaka giroa ontzen asi zitzaigun eta gero ta arrakasta aundiagoa zuen gure errietan. Aldundian bagenitun gogo guziz eskua luzatzen zigutenak, ume euskaldunei sariak emateko. Bere Aurrezki kutxaren kartillaz ematen genitun diru-sariak”.

Mugimendu berri honen inguruan aita Damasok bereganatu zituen gizonen artean, Inazio Baleztena, diputatua, eta Jenaro Larratxe, Iruñeko alkate ohia, zeuden besteak beste.

Elizaren laguntzarekin kondatu nahi zuen haste-hastetik, eta Iruñeko gotzaia zen on Jose Lopez Mendoza ikustera joan ziren Arturo Campion eta biak, Seminarioan teologo guziei euskarazko eskolak emateko eskatzen. Lortu zuten eta asko lagundu zien horrek Nafarroako apaizen aurrean. Bere inguruan zituen, noski, Miguel Intxaurren, Seminarioko irakaslea, eta Markos Etxarri, Aralarko santutegian zaintzale izana bezalako zenbait elizgizon.

Nortasun bereziko profesionalen artean, Fermin Irigaray “Larreko”, eta Bernardino Tirapu, sendagileak, Migel Olibier, Iruñeko Udalean artxibuko arduraduna, eta abar luzea zegoen.

Aurre-aurrean, noski Arturo Campion, Jose Agerre, Urabayan eta Maria Paz Ziganda, zalantzarik gabeko euskaltzaleak. Azpiegitura zuhurra

eta ondore ezin hobeak izan zituena. Euskal Festetan pertsona haiek ikustean susmo txar guziak haizatzen zirela, aitortu zidan.

Nafarroako Diputazioaren babesean haur euskaldunen sariketak eratu zituzten eta herriz-herri abiatu ziren Aurrezki Kutxako diru sariak banatzen. Ereintza —beti ereiten—, baina etorkizunaren oinarria zen haurtxoen bihotza euskararendako irabazteko asmoz, oraikoan.

Euskarak galtzeko arriskurik haundiena zuen Esteribar, Arakil eta Oroz-Betelu bezalako tokietan agertu ziren lehenik.

Nafarroaren egoera txarrean “Euskeraren adiskideak” bezalako lagun-di bat inolako nekaizkeriarik gabe sortzea, edozein euskaltzale jatorrek beretzat nahiko lukeen merezimendu aintzagarria da. Bego hor denon eredutzat, behar lukeen esker onik ofizialki inoiz jasoko ez badu ere.

EUSKALTZAINDIA

Iruñean 1920an jaso zuen euskaltzain izendapena, eta 1921.eko urtarilaren 27an irakurri zuen Elizondoko udaletxean bere sarrera hitzaldia. Aita Olabide arabarrak erantzun zion.

Ezin genezake aipatu gabe utzi azken urteotan euskara batua dela eta, berarekin gertatutakoa.

Kezka larriak sortu zizkion arazo honek. Hara, hitzez-hitz, 1968ko urriaren 16an idatzi zidana: “Dakuszunaz ezin asmatu dut Euskaltzaindiaren gaurko idazkeraz egiten. Euzkaltzaindi zaharrak zuan ortografian ordu erdi batez erakusten nien nik edozein ikastoletako aurrei, utsik gabe, idazten eta irakurtzen. Gaurko eran uste dut urte bat beharko dutela neronek artara jarri baño len. Eztiot beste euskaltzain iñori esan; baño zurekin ustu nai dut nere biotza. Min auxe daukat; ainbat gostarik, Euskaltzaindiak lendik zeukan ortografia, ain arin zilipurdika joanik ikustea.

Barkatu, nere adiskide maite, nere lasaialdi hau”.

Horrek ez du esan nahi euskararen batasunaren aurka zegoenik. Haste-hastetik jabetzen zen hizkuntza batu gabe euskarak ez zeukala iraupenik. Euskaltzaindiaren helburu nagusienetakoa, hain zuzen, batasun hori lortzea zen.

Aita Damasok Euskaltzaindiko sarrera hitzaldian esandakoa da honako hau: “Baño nere itzaldi au ez dut bukatu nai, Euskaltzaindiari itz bat eta neri entzutera etofiz ainbesteko omena egin diazuen guziori beste itz bat esan gabe.

Euskaltzain, jaunak; ikusi duguna ikusi ondoan guziori gogoratuko zitzaizuten neri gogoratu zaifena noski; nere lanetik berez jalkintzen den

zifua da-ta. Au da, onenbeste aldaketa ta onenbeste berextasunekin gure euskerak ez dezake deus irabazi. Irabazi beaŕean bereixtasun au euskerarentzat gauzarik kaltegarfienetakoa da.

Gure berextasun oiekatik, gure euskera maitagarfia paŕagarfi jartzen dugu gure artera datozen erdaldunen begietan, lotsagarfi elkaŕi ezin adifuz ikusten diran euskaldunentzat eta azkenean gofotagarfi ta zer esanbide naiko ematen diena, guri ta gure gauzei auŕetik gutxi nai digutenentzat. Argatik beaŕezkoa da euskera batutzea, euskera bizitzekotan.” (Ikus **Euskera** (1922) II, 91.or.).

Hau jakinik, harrigarri gerta daitezke egunkarietan berak egindako zenbait agerpen. Adibidez, behin honela omen zioen: “Batua horrenik ez dago. 1950-eko hamarkadan Ameriketatik itzultzean, Arantzazuko bilera batetara joan eta harriturik entzun nuen lehenengoz nola bi hizlarik euskararen batasuna H letraren bidez egitea proposatzen zuten. Azken 200 urtetan ez dela H-rik gure artean erabili esanez, aditzera eman nuen berehala aurkako nere eritzia”. (*Deia*, 1983. VIII.7)

Bi gauza ikusten ditut nik aita Intzaren erantzun honetan. Chiletik etorri berria zen, alde batetik, une hartan. Bere biziko etendura bat gehiago ikus daiteke batasunaz hasieran berak zuen asmoaren eta ia hogeit urteko erbestez 1956eko Euskal Herrian aurkitu zuen giroaren artean. Bat-bateko aldaketaren gehiegikeria iduritzen zitzaion, beste kazetari bati adierazi zionez: “Bai. Euskaltzaindiak bere sorreratik asmo hori izan zuen; baina arreta haundiarekin eta zentzuz egitekotan”. (DN.19.X.1984)

Urteak, noski, ez dira alferrik igarotzen eta hogeitaka urte kanpoan egon ondoren beretzat bat-bateko gehiegikeria gerta zaitekeen, egunero ko bizian hemen urrats motza, eskasa, ematen zela uste zutenen ondoan.

Nere ustez, irekitasunarekin begiratu behar da hainbeste nahigabe eman zion arazoa, ulergarria baita Euskal Herritik urruti zebilelarik.

H hizkian arazo guzia kokatzea beste hari askorekin lotutako korapiloa da. Orduko giroan garrantzi haundia eman zitzaion “letra mutuari” eta alderdi horrek bereganatu zuen gizona.

Erizpide zalantzarriak alde batera utzita, Intzako Damaso aita gizon osoa, fededun zineza eta euskaldun sutua izan zen bere bizian. Horrek ez du esan nahi bizia bere gustura egin zuenik. Nagusien esanera egon zen beti eta alderdi horretatik arintzen zituen nahigabeak. “Euskal-erritik lenengo aldiz atera nintzanean, nere gogoz ezpaño nere Nagusiak agindurik atera nintzan. Orain nere gogoz aruntza itzultzean ango gure Nagusien eskura zegoan gelditzeko esatea behar baninduten”, aitortu zion Tauer euskaltzaleari. (Chile-tik, 1958.IV.23)

Eta nola bizi hala hil. Gogoari uko eginez apaltasunaren bidean ibili zen gizona, berari zegokion eran joan zaigu. Duela urtebete Euskaltzain-

diak ehun-urteburuan egin nahi zion omenaldiaren berri ematean, ez zela horretara iritsiko, aditzera eman zidan buruari eraginez. Hil zen aurreko astean festaren berri eman nionean, eskuarekin gurutze bat eginez airean, eman zidan, hitzik gabe, azken erantzuna. Eta hala izan da.

Ongi begiratuta, beti egin zuena: ereintza. Jainkoaren aurrean jasoko zuen esker ona eta sari iraunkorra.

LABURPENA

Migel Olasagarre Zubillaga, erlijioan Intzako Damaso aita izango zena, Nafarroako Intza herrian jaio zen, 1986eko urriaren 19an. Bi urte zituela aldatu zen familia Madotz-a.

Ikasketak. 1900an Iruñeko Seminaria joan zen. Bi urteren buruan, Tuterako kaputxinoen komentuan sartu zen, 1902.eko abuztuan. Iruñean apaiztu zen 1910ean.

Idazlanak. Bi aldizkari sortu zituen: *Iruigarren Prantziskotarra* (1913), *Zeruko Argia* (1919). *Naparro-ko aditz-laguntzalea zuketako esakeran* (1921), *Burundako Euskalkia* (1922), *Kristau ikasbidearen I-ko ta II-garren zatia*ren azalpena (1924), *Naparroako Euskal-esaera zarrak* (1974), Aldizkarietako idazlan txikiak bestalde.

Itzulpenak. Asteteren *Kristau Ikasbidea*, *Xabierko Frantzisko santuaren bederatzia*rena, *Giza biziaz* (Humanæ vitæ enziklika), *Adoingo Esteban doatsuaren bizia*.

Elkargoak. *Euskararen adiskideak* berak sortutakoa da (1925). *Euskaltzain* izendatua izan zen Iruñean Jose Agerre-ren ordezkari (1920). Sarrera hitzaldia Elizondoko udaletxean eman zuen 1921eko urtarrilaren 27an. 1936an Chileko misiora bidali zuten nagusiek eta bertan jarraitu zuen 1968 arte.

Heriotzea Iruñean gertatu da kaputxinoen Errotazaharreko komentuan, 1986.eko irailaren 21ean. Ehun-urteburua ospatzeko egitekoa zen batzarrea, urriaren 24ean egin du Euskaltzaindiak Lekunberriko Ayestaran hotelean.

OIEREGI-KO BUENAVENTURA AITA (1886-1956)

Larraun-Lekunberri, 1986-X-24

Patxi Ondarra

Aurtengo abenduaren 7. egunean ehun urte direla jaiotako Bertizarana-ko Oieregi herrian Joaquín Eugenio Plácido Senosiáin (1) Ochoteco; gero, kaputxino egin zenean, Oieregiko Buenaventura A. izango zena. Gurasoak kanpotarrak zituen, Aita, Dionisio, bide begiraria (2), Iruñekoa zen, gurasoak Lizarra eta Espartza-koak zirela: José eta Celedonia Yoldi; ama berriz, Jesusa, lesakarra zen eta gurasoak ere bertakoak ziren: José Ignacio eta Carmen Iribarren.

Hamabi urterekin sartu zen Iruñeko apaiz mintegian eta bertan lau urtez (1899-1903) humanitate ikasketak egin zituen, bakantzetan herrira itzultzen zelarik. Humanitateak bukatu ondoren, Zangoza-ra abiatu zen (1903) kaputxino izateko eta hurrengo urtean (1904) kaputxino egin zen. Filosofiako hiru urteak Tutera-n ixtudiatu zituen (1904-1907) eta teologia-koak Iruñean (1907-1910), hemen apaizten zela teologia amaitu ondoren (1910), eta predikari titulua 1912. urtean lortzen zuela.

Ikastaldiak bukatu eta gero, honako komentu hauetan bizi eta lan egin zuen: Iruñean (1910-1912), Hondarrribian (1912-1915), Altsasun (1915-1918), Iruñean berriz ere (1918-1920), Lizarran (1920-1921), Altsasun (1921-1928), Hondarrribian (1928-1933), Altsasun (1933-1934), Hondarrribian (1934-1936) eta Lekarozen (1936-1956), hemen hiltzen zela. Guduak hasi baino lehentxeago, hortzak gaizki zituela-ta, Lekarozera joan zen, horretan oso trebea zen Etxalarko Frantzisko Anaiak trata zezan; eta Lekarozen harrapatu zuen guduak.

Horregatik, azkeneko 20 urteak hor egin zituen, predikari bezala. Bi eta hiru mezatan predikatzen zuen igandeetan, euskaraz ongi zekiten gehienak munduko lau aldeetara sakabanatuak izan zirelako.

(1) Deitura ez da Pérez (de) Senosiáin, baizik eta Senosiáin; eta hirugarren izena Plácido da.

(2) Aita ez zuen izan eskola maisu, Damaso Aitak esanda, batek baino gehiagok argitaratu duten bezala. Oieregiko eliza liburuek diotenez, "celador de caminos" zen. 1888. urtean hil zen.

Alaia, onutsa, animen alde langile nekaezina, Elizarekiko atxikimen haundikoa. Bizitza osoa apostoladutzan igaro zuen, parrokupei laguntzen, predikatzen, euskaraz idazten, hirugarrendarrei kasu egiten.

Belarriek entzuten eta haizeak eramaten duen hitzaren ondoan begiek ikusten eta gorde daitekeen hitzaren zale eta langile bilakatu zen. Hasiera hasieratik ekin zion irakurgaiak zabaltzeari eta aldizkariak sortzeari. Predikari titulua lortu eta hurrengo urtean, berak eraginda, jaio zen *Iruugarren-go Prantziskotarra*, *Damaso Aita* zuzendari zelararik eta *Oieregik* maiz idazten zuelaririk, *Arbelaitz*, *Osinburu* eta *O-tar B.* izenordeak erabiltzen zituela (3).

Sei urte geroago (1919) hasi zen *Zeruko Argia*, hau ere berak eragin-da eta berriz ere *Damaso A.* zela zuzendari. Gudu ondoan, eta hemezortzi urtez isilik egon ondoren, berak berpiztu zuen *Zeruko Argia*, zuzendari ere bera zelaririk, eta *Elizalde* izenorde berria erabiltzen zuelaririk. *Damaso A.* bitartean *Txilen* zegoen, animen alde lan da lan, eta Euskalerriaz bat ere ahaztu gabe. Baso eta oihanetan egurketan ari ziren mutilez kezkatu-rik, hamabost egunero banatzen zuen azken urteetan (1951-1956) multikopiaz egindako orri bat, *Artzai Deia* izeneko. Ameriketako artzaie-tara ere ailegaten zen dei hori, herrietako berriekin eta kristau ikasbideekin.

Haurrendako aldizkari baten atzetik ere ibili zen, baina ezin izan zuen gorpuztu, oso garesti zirelako irudiak. Honen berri *Lizartza-ko Andres* Aitak ematen digu, Lekarozen irakasle eta Txinan misiolari izan zenak. Gordetzen da berak euskaraz idatzitako paper multzo bat, eta honela irakurtzen dugu:

“Etorri da Oyeregi”tar Bonabendur A. Aba begizko au (sic) gogor diardu, euskerazko aurren aldizkingia eta euskal idazti onen aldezko Bazkun bat irasteko lanetan” (1923, XI-30).

Damaso A. ere lagun zuen arazo honetan, Lizartzak dioenez: “Gaur etorri da Intza’r Damas Aba eta onek esan digunez, aurren euskal aldizkingia ez da aterako noski, txindi bearragatik. Ateratzeko Italia’ko beste aldizkingi batekin ari ziran artu emanetan, Nunzio jaun agurgarriak ere ortarako bultzatzen zuala edo, baña irudiak oso garesti ematen dituzte eta eziñezkoa bezela edo utziko dute noski” (1924, I-17).

Bi urte ta erdi lehenago aurkitzen dugu euskal idazleen elkarte bat eratzeko ahaleginetan murgildurik, Lizartzan irakurtzen dugunez: “Nagu-

(3) S. Onaindiak dioenez, *O.* ere erabili zuen izenordetzat. Egia esan, izenorde hori lehenbiziko aldiz 1936. urteko *Iruugarren-go Prantziskotarra*-n ageri da: 125, 132, (140) eta 148 or.; eta gero gudu ondoko *Zeruko Argia*-n, 1954 eta 1955 urteetan. Cf. Onaindia. *Euskal Literatura*, IV, 368. Argitaratu gabe dauden idazkietan *Oianegi* eta *Yoldiko Juakin A.* ere agiri dira.

si A'k esan didanez, illabete onen 26'an, gure ikastetxe ontan Euskel-idazle batzar bat edo egingo omen da; Oyeregi'tar Bonabendur A'k edo asmatua izango da noski. "Jaungoiko-Zale"ren artezkari Jauna Oyeregi ta Damas AA. eta abar etorriko omen dira" (1921, IV-21). Eta berriz ere: "Artzubiaga'tar Kuiril Jauna Oyeregi'tar Bonabendur eta Intza'r Damas AA.kin beren batzartxoia egitea (sic) edo etorri dira" (1921, IV-25). Eta beste hau: "Irastea asmatu duten batzaren (sic) araudia egiñik utzi dute, eta eldu den illaren 16'an batzar bat Donosti'an egiteko asmotan dabiltz" (1921, IV-27). Eta azkenik: "Oyeregi A'k eta asmatutako batzarra Donosti'an Aldundi-Jauregian, gaur izango zuten noski" (1921, V-18) (4).

Lizartzak jakitera ematen digunez, beste bide bat ere zabaldu zuen Oieregik euskararen faboretan: otoitza. Entzun dezagun: "Abakide mordoxka bat, txandaka illero egun batez, gure Aberriaren eta Euskeraren alde gurutze bidea egingo degula, itz-artu-ta gaude. Oyeregi A'k gaur bialdu digu, zer egunetan egingo duan bakoitzak" (1922, V-16). Beste batean, Oieregiren gutun batetik pasarte hau ematen du: "Berri ona: Donosti'an gurutze-bidea egiten dutenak 600 ta geiagorano iritxi dira: badira oien artean jeltzaleak ta ez-jeltzaleak: beraz gure Donosti'ko batzarrea ezta alperrikakoa izan. Lenago 4'en bat talde ziran ta orain 20 ta geixeago" (1924, V-25).

Haurren aldizkaria ez, aipatu ditugun beste asmo guziak gorpuztu zituen. Beste amets bat ere izan zuen, amets hutsetan gelditu zena: euskal eguneroko bat argitaratzekoa. "Euskal-Esnalea" aldizkarian astintzen du gai hori. Bertan dioenez, "egunerokoak euskerari indar aundia emango lioke, ta batasunerako bideak gertu edo prestatuko ditu" (1917, 73s. or.). Nork idatzi? Denak: jakintsuak eta jakinezak. Zer eta zertaz idatzi? Ipuiak, izkirimiriak, neurtitzak; nekazaritaz, langileen eginbeharez, arrantzaleen gauzez, erlijioaz, salerosteaz, edestiaz edo kondairaz, abereak hazitzeko eraz, eguneroko gertaerez, haurren hazieraz etab. Politika ez du aipatzen gaien zerrendan.

Gero (Ib., 1917, 113s.) berri biltzaleen beharra ikusten du, eta besteak beste, hau dio: "Amerika'n, Ozeania'n, Asia'n ta Afrika'n izango lituzke euskerazko albistariak, misiolari euskaldunak alde guzietan barreaturik daude-ta. Ontan erderazko albistari guziak atzean utziko lituzkela uste det".

Hartzailen arazoa ere tratatzen du eta oso baikor ageri da, honela bait dio: "Egunaria atera baño len labea nola dagoan ikusi bear da ta ni ikusi naiez nabill; itxuraz berotxo dago. Ara zergatik diodan. Dagoaneko

(4) Cf. B'tar P. (Federico Belausteguioitia). *La unificación del euskera*. Bilbao (1916). Liburuxka hau irakurri ondoan idazten du Oieregik bere artikulua.

badira 530 arpide *iya egiñak* (kurtsibaz orijinallean), argitaratzea nai degun egunariarentzat” (Ib., 1918, 88).

Euskararen batasunak ere kezkatzen du eta hau dio: “Euskerazko idaztiz gertatzen dana oso latza da gero; bizkaieraz idatzi ta Bizkai’an bakarrik irakurri; laburdieraz ta zuberoraz, ta berdintsu. Ta, oraindaño-ko bideari jarraitzen ba gatzaizkio, inoiz izango ditugu eguneroko albistari aundi ederrak? Nik uste inoiz ere ez” (Ib., 1916, 245s.). Bat dator Federiko Belaustegigoitiarekin bai batasun asmoz eta bai idazkeraz ta hitz berriez dioen gutzian. Eta eransten du: “Gogoak ematen dit ainbeste itz berri asmatzea ta ain euskera zallaz idaztea, gure idaztiak ta iztegiak gutxi erabiltzetik datorrela”. Gipuzkoera proposatzen du euskararen batasunerako, bera naparra izanik, “*bortz, ortzegun ta erran* esaten diran errikoa” (Ib., 1916, 245s.).

Gai honetaz berriz ere **Euskera** aldizkarian hitz egiten du. Galdetzen du: “Euskera batu bearrik bai al dago?”. Eta erantzuten du: “Irakurgaiak indar aundia artzekotan bearrezkoa da; bearrezkoa da izkelgi bat Euskalerrri guzian edo geienean aditza... Egunaria bear dugu, egunari aundia ordea ta gaurko egunean zailla dana, izkelgi bat autatu ezkerro erraztu egingo litzeke”. Zein hautatu? Berak ez du dudarik egiten gipuzkoera hautatu behar dela, bada “Bizkaian izkuntza ontan egindako itzaldiak aditzen dituzte, Naparruan ere bai, Lapurdi’n ere berdintsu izan bear du, auzoan dago ta”, dio (**Euskera**, 1922, 101s.). Egia esan, Oieregik gipuzkoeraz idatzi ohi du.

Batasun bide konkretu bat azaltzen du beste bi lanetan (Euskal-Esnalea, 1924, 141-146, 165-169). Beste bi lan ere ageri dira aldizkari horretan arazo honetaz, eta horietako lehenengoan dio: “Euskalkien batasuna egiñik al dago? Erdi-egiñik beintzat bai. Ta aditza edo berboa kendu ezkerro, iya oso egiña dagoala esan diteke, nere ustean, okerrik egin gabe”. Bere baikortasun hori hiztegian edo lexikoan oinarritzen du, eta baikortasun horrek eta batasunaren ardurak bultzatuta hiztegi bat argitaratuko du 1929. urtean (Ib., 1925, 141ss.; 1926, 181s.).

Euskararen batasunaren premiak ez du ordea itsutzen, eta konkretu-ki bizkaieraz edo Bizkai-ko euskaldunaz ez da ahazten. Horregatik, argitaratu gabe gelditu diren beraren paperetan jorrazten du alor hau teorikoki eta praktikoki. Izan ere, argitaratzeko prest zeukan lan batean, bizkaieraz eta gipuzkoeraz edizio (5) bereziak egiteko seinaleak ipintzen ditu.

* * *

(5) Cf. gure lan honen bukaeran. “II. Oieregiren lan argitaragabeak” sailean, 19. zenbakia.

Oieregiren idazkietara gatozela, esan dezakegu hirurehun bat lan argitaratu zituela honako aldizkari hauetan: *Irugarrengo Prantziskotarra*, *Zeruko Argia*, *Euskal-Esnalea*, **Euskera** eta Donostiako *La Cruz* izenean. *Zeruko Argia*-n agertu zen multzo luzetxo bat *Quadragesimo Anno* entziklikaren itzulpena da.

Liburuak eta liburuxkak bederatzi dira, gehienetan erlijioarekiko gaiak osatzen dituztela: Jesukristoren Bizitza, herriarendako liturgia eta euskal-erdal, erdal-euskal hiztegia. Iruñean, *Archivo Provincial de Capuchinos* delakoan gordetzen diren lanak, argitaratu gabeak, ez dira gutxi. Horietan ere erlijioa eta euskara dira gaiak. Erlijioaren arloan hauek dira nagusi: kristau ikasbidea, apologetika, sinismena eta katoliko ekintza. Euskararen arloan: euskal irakurgaiak nola erraztu eta batasunera eramán, bizkaiera eta gipuzkoeraren arteko desberdintasunak nola gutxitu, erdaratik euskararako itzulpenak nola egin, erdal-euskal hiztegi erlijio eta gizarteko lexikoa dakartenak moldatu, etab.

Esan dugun guztia entzun ondoren ez da inor harrutuko Euskaltzaindiak hasiera-hasieratik bere urgazle egin zuela jakiteaz. Lizartzak ematen digu honen berri, honela (6): “Atzoko izparringitan irakurri det “Euskal-Zaindia”k Oyeregi’tar Bonabendur A. bere laguntzaletzat edo autatu dula (Académico correspondiente)”. 1921. urteko martxoaren 4. egunean idazten du hori.

I. OIEREGIREN LAN ARGITARATUAK

1. Jesukristo gure Jaunaren Bizitza. EGILLEA Mataro’tar Pelegrin O.M. Cap. ITZULTZALEA *Arbelaitz O. M. Cap.* Iruña’ko Kaputxino’en Irarkolan (1921), 1-87 or.

2. Gaurko Izkillu edo Arma. (IRAKURGAIK). *Arbelaitz kaputxinoak* itzulia. NOTA. Aita Samuele Cultrera Kaputxinoa (da egilea). DONOSTIA, 1922, 1-102.

3. PENTEKOSTE. *Arbelaitz A. O. M. Cap.* Erriarentzako Liturgia. IRUÑA, 1930, 41-52.

4. Pentekostes-ondorea. *Arbelaitz O. M. Cap.* Erriarentzako Liturgia. IRUÑA, 1930, 53-62.

5. Billebaiketa edo Zirkunzizio-Jaia. ARBELAITZ O. M. Cap. Erriarentzako Liturgia. IRUÑA, 1931, 1-11.

(6) *Euzkadi* edo *La Gaceta* egunkarietan izan daiteke honen berri.

6. Erramu Igandea. Arbelaiz O. M. Cap. Erriarentzako Liturgia. IRUÑA, 1931, 27-38.

7. Bezperak. ARBELAIZ O. M. Cap. Erriarentzako Liturgia. IRUÑA, 1932, 1-64.

8. Diccionario Castellano-Vasco y Vasco-Castellano de voces comunes a dos o más dialectos. Bilbao, 1929, 1-357 eta I-X or. NOTA. Gehigarri bezala liburuaren bukaeran hau dakar: "Observaciones para evitar, en cuanto posible, las diferencias verbales de los dialectos bizkaino y guipuzkoano". Gudu ondoan bi aldiz argitaratua.

II. Oieregiren lan argitaragabeak

Archivo Provincial de Capuchinos izenekoan, Iruñe-ko Errotazar kalean dagoenean, gordetzen dira Oieregiren paperak.

1. Belarmino - Oianegi, O. F. M. Cap. KRISTAU IKASBIDEA AZALDUA ETA AUSNARTUA Ikasbideakin eta Gogarte edo Meditazioekin, 253 or. NOTA. Lan guztiak makinaz daude, tarte bikoitza, folio erdikoak.

2. CLAUDIO FLEURY. EDESTI - KRIST(IN)AU - IKASBIDEA, I, 46-172 or.; II. 173-392. NOTA. Gipuzkoera eta bizkaiera nahasturik.

3. Ataungo Ilario A., O. F. M. Cap. KRISTAU IKASBIDEAREN ERAKUSLEA. Itzultzalea: Oianegi, O. F. M. Cap. I - ZER SINISTU. I-X, I-XXVIII, 370; II - ZER ESKATU. 370 (sic) - 691. NOTA. Honen ondoan eta berarekin erlazonaturik, beste 1-96 or.

4. Oianegi, O. F. M. Cap. VOCABULARIO RELIGIOSO-SOCIAL por Orden de Materias. I. FUNDAMENTOS DE LA RELIGION, 1-72; II, DOGMA Y MORAL, 1-130; II. VOCABULARIO SOCIAL, 1-69.

5. Vocabulario Social, 1-20.

6. Vocabulario Social CASTELLANO-VASCO (Llovera). 1-20.

7. VOCABULARIO SOCIAL. 1-16. NOTA. *Rutten* Aitaren "La Doctrina Social de la Iglesia"tik hartua.

8. VOCABULARIO DE ACCION SOCIAL CATOLICA. 1-22. NOTA. *Guerry-Peiró*-renetik hartua edo bildua: "Código de Acción Católica". 1932.

9. VOCABULARIO RELIGIOSO-SOCIAL IDEOLOGICO CASTELLANO-VASCO. 1-15.

10. Vocabulario popular religioso-social. II. VOCABULARIO POPULAR RELIGIOSO. 1-12.

11. (*Estalkian*) *ADITZA ERRAZTU TA BATUARENTZAKO AGIRIAK (1. orrialdean) AGIRIAK* - Documentación. Aditza laguntzalea uztea - Supresión del verbo auxiliar. 1-7.

12. *OIAN-EGI. TRADUCCION DEL CASTELLANO A LA LENGUA VASCA. ENSAYO DE NORMAS PRACTICAS. 1-9. NOTA.* Izen honekin hamar bat paper multzo eta horietako batean: "8.^a red(acción)".

13. *DOCUMENTACION REFERENTE A TRADUCCION DEL CASTELLANO A LA LENGUA VASCA. NORMAS PRACTICAS. 1-21.*

14. *OYAN-EGI, O.M.C. PROCEDIMIENTOS EMPLEADOS EN LA VERSION AL EUSKERA DEL CODIGO DE ACCION CATOLICA DE GUERRY-PEIRÓ. 1-15.*

15. *ASZETIKA GAIAK. 1-11. NOTA.* Erdaraz dago, eta gai zerrenda bat da.

16. Diario perteneciente a "Artzai-Deia". PP. Capuchinos-Lecároz. *NOTA.* "Artzai-Deia"ri dagozkion diru kontuak, 1950. urtean hasi eta 1955. urtea, abenduak 14, arte. Aldizkari horri dagozkion beste gai asko ere badira karpeta horretan.

17. *IDAZLE MALTZURRAREN GRAMATIKA NABARRA. 1-13. NOTA.* Bizkaiera eta gipuzkoeraren desberdintasunak gutxitzeko aditzaren inguruan.

18. *NOTA.* Sermoiak dira, 17 bat prediku (7). Zaharrena Irañeta eta Bakaiku-n 1922. urtean predikatua; berriena 1952. urtean, Irurita eta Lekaroz-en.

19. Zergatik sinistu? Arbelaitz, O. M. Cap. 1-8, 1-71, 1-81, 1-3 (Billabidea), 1-18. *NOTA.* Inprentarako prest dagoela ematen du, eta gipuzkoeraz eta bizkaieraz edizio bereziak egiteko idatzia dago.

20. *OIAN-EGI, O. F. M. Cap. VOCABULARIO POPULAR RELIGIOSO-SOCIAL, 1-4, 1-212, 1-10 (Apéndice).* *NOTA.* Sarrera oso interresgarria autorearen pentsamoldea eta lexikoarekiko irizpideak ezagutzeko (8).

(7) Badira beste 4 bat sermoi han eta hemen sakabanatuak.

(8) Hitzaurrean, besteak beste, hau irakurtzen dugu: "(Para ser) popular he huido del excesivo purismo... he dado cabida a algunos (neologismos) que no agradan del todo a un gran vascófilo de los que conocen mejor nuestra lengua, escritor, traductor, predicador que conoce el lenguaje popular como pocos".

Gero eransten du: "yo estoy arrepentido de los errores de mi primera juventud; que los jóvenes que me lean no tengan el día de mañana necesidad de arrepentirse como yo".

Goian aipatu duen euskal idazle, itzultzaile eta predikari hori *Iraizoz-ko Polikarpo A.* izan daiteke, gure ustez.

21. Guerry-Peiró. KATOLIKO-EKINTZARAKO ZUZENBIDEAK. (I), I-VII, 1-197. NOTA. Oieregik hiru gehigarri erantsi ditu: 1926. urtetik aurrera atera ziren Aita Santuen ageri hauek, hots, 1. Gazteriaren Haziera Kristaua, 2. Ezkontza Kristaua, 3. Gizarte-Era edo Ordenaren Berritzea izeneko Enziklikak.

22. (Pakete batean gauza asko): 1. Meza Alkarrizketan; 2. Zergatik sinistu?; 3. Erljioaren Edesti (Istori) Laburra; 4. Nere Erljioa. Bi Itz; 5. III Zatia. Erljioa. Goieneko Malla; 6. Duplessy. Uzkurtza edo Erljioa pitinka. Sinistu Bear Dana; 7. (Lenengo Irakaskintzarako) Jakinduriak Uzkurtzaren Inguruan; 8. IV Kristau Ikasbidearen Banatzea (“distribución”); 9. Eliza Katolikoa; 10. Ekintza Katolikoa; 11. Kristau-Ikasbidea eta Meza-Liburua; 12. Ebanjelioak eta Kristau Ikasbide Gaiak; 13. Igan-deko Ebanjelioa eta Kristau Ikasbidea; 14. Astarloa-Oianegi. Urteko Igan-de Guztietarako Kristau-Ikasbide Itzaldiak, 1-27 or.; 15. Euskal Idazti eta Antzerki Izendegia. NOTA. Estornés Lasa-ren “Historia del País Basko-”tik hartua; 16. Idazti Donea (Schmitt), 10 or.; 17. Liturjiaren Zimendu Egiak; 18. Sinismenaren Zergati edo Arrazoiak; 19. Kristau-Ikasbidea Jesukristo gure Jaunaren Eskolan; 20. Zergatik Katolikuak izan; 21. Katolikuak Izan Bear Degu; etab.

23. ARGIA, BIDEA, BIZIA, KRISTAU IKASBIDEA LABUR AGERTUA. Egillea: Yoldiko Juakin A. O. F. M. Cap. 1-648. NOTA. Prentsarako prest zegoen, *Nihil obstat* eta *Imprimi potest* eta guzti: 1950. urtean.

24. *Carpeta Personal* delakoan: 1. Oieregiren “Curriculum Vitae”; 2. Ataungo Ilario-rekin gutun eta zuzenketa Kristau-Ikasbidea zela-ta; 3. Apaizen eta parrokuen gutunak *Artzai-Deia* zela-ta; 4. Ordenako nagusiei gutunak gai horretaz; 5. *Guía del Catequista*-ren itzulpena argitaratzeko hartu-emanak.

AITA DONOSTIA ERBESTEAN

Lekunberri, 1986-X-24

Jose Antonio Arana Martija

Euskaltzaindiak Aita Donostiari zor dion omenaldia ospatzera goaz euskaltzain urgazle honen jaiotzako mendeurrenean eta heriotzatik hogeitamar urte betetzen direnean. Donostiako Jose Antonio zenaren biografiaz saiatukeran, musika ikuspegitik aritu izan dira gehien bat biografoak eta mendeurreneko urtean zehar musikuaeren nortasuna baizik ez da aztertu; egia esan, musikegile trebea izan genuen Aita Donostia eta musikaz ikerle eta hizlari fina. Baina musikegile gisa eman bazituen bere lehen urratsak —eta luzeenak, behar bada— ez dugu ahaztu behar euskal folkloreaki eman ziola bere biziaren zati eder bat, 1916an hasita. Eta folklorea, hots, herri jakituria aztertzerakoan, hizkuntzari, euskarari eman zizkion gau eta egunetako orduak. Mendirik mendi, baserriz baseri biltzen zituen kantuen testuak, euskarazko hitzak, hain zuzen, izan zituen aztergai. Horregatik, euskararen alde egindako lanegatik, Euskaltzaindiak euskaltzain urgazle izendatu zuen, eta horregatik, orain, gogoramen bat zor dio. Sarrera hitzaldia 1955.eko Abenduaren 31n bukatu zuen Lekarotzen eta 1956.eko Urtarrilaren 26an, Euskaltzaindiaren hileroko bileran, irakurri zuen Donostian (1).

Jose Gonzalo Zulaika Arregi —hau zen bere munduko izena— Donostian jaio zen 1886.eko Urtarrilaren 10ean. Lekarotzeko Kaputxinoen komentuan Batxillergoa bukatu ondoren nobiziagoan sartu zenean aitaren eta jaioterriaren izenekin osatu zuen bere bizi guztirako praille izena: Jose Antonio Donostia. Esan dezagun hemen, aurrera jo orduko, gerra denboran eta geroago, orduko ahalmen handiko burutxikien erruz, jaioterriko euskarazko izena aldatu egin behar izan zuela eta garai hartako musikalan batzuetan, inprimatuetan noski, Jose Antonio de San Sebastian azaltzen zaigula. Garai berean, ixilpean ibili behar zuenean, “A. Zabala” izen ezkutuarekin sinatzen zituen orduko musikalanak.

(1) *Egan*, 1956-2, 34-52 orr. - O.C. V, 1985, 351-371 orr.

Hirurogeitamar urte bete zituelarik hil zitzaigun Aita Donostia Lekarotzen 1956.eko Abuztuaren 30ean, orain hogeitamar urte duelarik. Ekin-teez bete zuen bere bizitza luzea; hain ezaguna eta adiskide izan zuen Querol-ek esaten zuenez, hiru motore bultzegile izan zituen: Euskal Herria, Erljioa eta Musika. Abertzale fina, garbia eta oso-osoia izan zen gure prailea. Eta izaera honek ekarri zion ondorea da gero ikusiko duguna. Baina munduan zehar ibili arren, —Argentinara ere heldu zen erlijiozko mezu batekin—, ez zuen bere erlijiozko nortasuna ahanzten: “el frailecito andariego con el claustro a cuestras” definizioa eman zion andere idazle batek. Eta bere nortasunaren hirugarren zutabea musika izan zen zalantzarik gabe. Beraz **Euskaldun praile musikua** izan daiteke Aita Donostiaren definizioa.

1908an Lekarotzen apaiztu zenetik hamar urtetan zehar bertako ikas-teez irakasle izan zen, 1918 arte. Sasoi hartan gregoriano ikasketak bete zituen Silos, Besalu eta Solesmesen, eta bere musikalanetatik ederreren bat burutu zuen, **Euskal Preludioak**, pianorako eginak, baina orkestraz ere jotzen direnak. Eta Lekarotzeko hamar urteko epe horretan burutu zuen inguruetako kantu bilduma ere, **Euskal Eres Sorta** izenarekin 1922an agitarra eman zuena.

Norberto Almandoz-ekin doa gure Aita Donostia lehendabiziz Parisera 1920an, Vincent D’Indy-ren Schola Cantorumera. Eta hurrengo urtearen hasieran, 1921.eko Urtarrilaren 23an, bere musikalan luze bat aurkeztu digu Parisen: Henri Gheon idazlearen testuei jarritako musika, **Les trois miracles de Ste. Cécile**. Maurice Ravel ezagutzen du orduan eta honen gomendioz Eugene Coools hartzen du irakasletzat. Lehen aipatu dugun Argentinarako bidaia burutzen du 1924an, eta berriz Parisera etorrita, 1926.eko Azaroaren 1 eta 6an, Champs Elisées antzokian, **La Vie profonde de Saint François d’Assise** estreinatzen du. Henri Gheon idazlearen testuekin hirugarren musikalan bat ere burutzen du, **Le Noël de Greccio**, hau ere Parisen 1936.eko Otsailaren 9an aurkeztua. Laugarren testu bat ere musikaturako dio idazle honi 1938an, hots, **La Quête héroïque du Graal**. Baina azken hau erbestean bizi delarik, alegia.

Momentu honetara iritsi nahi nuen —eta heldu behar ere bai— hau baita nere gaurko hitzalditxo honen gaia. Eta Aita Donostiaz hitz egitera-koan, hauxe zela —uste nuen— gairik interesgarriena, bera bait da gutien ezagutzen den bere bizitzaren pasartea. Nik dakidanez, ez du inork Aita Donostiaren erbesteaz ezer idatzi, eta bazen garaia zeezer patxadaz esateko, esan eta idatzi direnak, gehienetan oker daude eta. Erbestearen kronologia emateko erbesteratua bera izango dugu iturri, eguneroko gertakizunak Lekarotzeko Artxiboan Aita Riezuk gordetzen dituen koadernoetan idatzita utzi zizkigun eta.

Hiru aldi bete zituen Donostiako Jose Antoniok erbestean, 1936-1943 urteen bitartean:

1936-XI-03 / 1939-XI-26 Toulousen
 1939-XI-26 / 1940-VI-11 Parisen
 1940-VI-11 / 1941-V-14 Mont-de-Marsan-en
 1941-V-14 / 1943-IV-1 Baionan

Azkenaldi hau, nahiz eta Euskal Herriko Baionan igaro, erbesterratu gisa eman zuen Aita Donostiak, Hego Euskal Herrira itzuli ezinik aurkitzen zen eta. Beraz Baionan amaitu zuen desterrua. Irakurria dut Baionan hasi zuela erbestea 1936.eko Uztailaren 18an; eta ez da egia. Egun horretan, Espainiako gerra hasi zen egun berean, Donostiatik Baionara joan zen Aita Donostia, baina ez erbestera. Irungo muga zabalik zegoen eta La Argentina dantzariarekin joan zen gure prailea Baionara, goizean Donostian euskal dantzen saio bat Antonia Mercé horri aurkeztu ondoren. Gau hartan bat batean hil zen dantzari hori Baionako Miraflores Enean, Aita Donostiak komentutik goizaldean hurbilduta azken sakramentuak eman zizkiolarik. Hurrengo egunetan Baionatik Sarara bitartean ibili zen Aita Donostia, Lerenboure eta Intxaustirekin errefuxiatuentzat etxeak biltzen, asko bait ziren Nafarroatik zetozenak. Baina Abuztuaren lehen egunetan berriz zegoen Lekarotzen gure prailea. Egun haietan, hurrengo urtean ospatu beharko zen omenaldi bat antolatzen zebilen Aita Donostia, Jean-Dominique-Julien Sallaberry-rena. Maulen 1837an jaioa zen eta laster beteko zen mendeurrena. Eusko Ikaskuntzako Musika Sailaren Burua zenez, berari zegokion omenaldi hori antolatzea, eta horretan zebilen gerra sortu zenean.

Aita Donostiako Jose Antonioren desterrua Azaroaren 3an hasten da. Arratsaldeko 6retan, Aita Riezu Iruñera doa, Argentinarako bideetan, eta Aita Donostia, ordu berean, Dantxarineako mugarantz Frantziako Toulousera iristeko asmoetan. Azaroaren 6an heldu zen hiri horretara, Ataungo Aita Bonifazio bertan aurkitu zuelarik. Hiru urte beteko ditu Toulousen, Parisera, Bordelera eta Baionara noiz behinean bidaiak burutzuz. 1937.eko Otsailaren 11an Azkainera doa Urreta jaunarekin ezkondua den arreba Maria ikustera, lau edo bost egun bertan familiarekin egonez. Otsailaren 18an berriz dago Toulouseko komentuan. Konposaketari ekiten dio eta hitzaldiak prestatzeari. Musikalaren artean aipatu beharko genuke Otsailaren 24tik Apirilaren 8 arte, hau da, hile terdian, **Pasioaren Poema** amaitu zuela. Beste lan batzu ere burutu ditu egun hauetan: **Qué seria yo sin ti**, Amabirjinari Kantiga, **A la fontaine de Beleria**, **Envoi**, kantu eta pianorako, **Chansons Landaises**, **Enfantines II**, **Betharram jeu scénique du Centenaire**, eta abar. Idazlanen artean burutzen dituenak hauek dira: **La chanson basque et son harmonisation**, **A propos du cantique "Jesus gurutzer"** eta **Quelques observations sur la manière de recueillir des chansons populaires**. Azken lan hau irakurtzeko Abuztuaren 19an Parisera joan zen, bertan 23tik 28ra II Nazioarteko Folklore Biltzarrean parte hartuz. Irailaren 15rako berriz zegoen Toulouseko komentuan.

Hurrengo urtean, 1938an, Toulouseko Komentuan oraindik zegoelarik, beste osterara luze bat egingo du Parisera, Maiatzaren 4tik Ekainaren 27rarte. Rue Boissonadeko 26. zenbakian dagoen Kaputxinoen komentuan ostatu zen oraingo honetan. Opor alditxo bat hartu zuen Abuztuaren Bordeleko Komentuan ostaturik. Eta Irailaren 14an Clermont Ferrand-en antolatutako Hirugarren Ordenako Batzarrera joan zen, berriz Toulouse-ra itzuliz. Hemen burutuko du, urtea amaitu orduko, **La Quête heroïque du Graal**, Henri Gheon idazlearen testu bat musikaturik.

Ia beste urtebete iraungo du Aita Donostiak Toulousen, 1939.eko Azaroaren 26rarte. Otsailaren 4an osterara luze bat egin zuen Carcassonera eta luzeago bat Parisera Martxoaren 15etik Ekainaren 3rarte. Pariseko osterara guztietan, baita oraingoan ere, Biblioteka Nazionala eta Operako Biblioteka ziren Aita Donostiaren helburu interesgarrienak. Ikerketak ziren, ikusten denez, hiriburu hartara joateko aitzakiak. Baina konposaketarako ere ematen zituen orduak, eta, esaterako, Apirilaren 9an, Aberri Egunean, lau ahotsetarako **O Sacrum Convivium** burutu zuen. Aste bete Baionan igaro ondoren, Toulousen zegoen berriz Ekainaren 10erako. Urte horretan ere hamabost eguneko opor alditxo bat hartu zuen Toulouseetik hurbil, Madame Mathilde Pomèl-en etxean atsedenezko egunak Abuztuaren bigarren hamabostaldian burutuz.

Ordurako Espainiako gerra bukatua zen eta mugaz handik zetozen errefuxiatuek babesa behar zuten Iparraldean. Arazo honetan arduratu zen gure Aita Donostia 1939.eko udazkenean. Urriaren 26an Donibane Lohitzunera joan zen Pepe Boyeren etxean ostaturik, eta larunbatez, urriaren 28an Sarara joan zen Madame Rigal, Garipuy, Eloseggi, Goietxe eta Delpech jaun-andreak agurtuz. Azaroaren 3an, bere egunkarian dioenez, Viñesen etxean ahots ederreko Lide Ibarrondok kontzertutxo bat eskaini zien bertan bildutakoei, hots, Ramiro Arrue, Juan Muñoa, Alejandro Valdes, Pepe Boyer eta abar. Azaroaren 6an Toulouse-ra itzuli zen berriz. Han zeuden Iñaki Azpiazu, Asteinza, Urrutia eta beste, horiek ere errefuxiatuekin arduraz beterik; azaroaren 15ean Toulouseko Apezpikuarengana jo zuten euskaldun langile errefuxiatuentzat etxebizitzak biltzekotan. Hurrengo egunean geltokira joan zen Aita Donostia 83 langileei harrera egitera. Halako beste ekintza batzuek ondoren, Pariseko bidea hartu zuen, Toulouseko aldia bukatuz, Azaroaren 26an.

Bost hilebete terdi beteko ditu Aita Donostiak Parisen. Lehenetariko ekintza izango da Abenduaren 13an burutzen duena: Kanposantura joan eta Debussy-ren hilobian erresponso bat eskaintzen dio musikuari. Egunotan Trocaderon dagoen Folklorearen Museora doa, baita ere Kontserbatorioko Bibliotekara. Tours-era osterara bat egin ondoren Gabonetarako Parisen dago. Maiatzaren lehen hamabostaldian Donibanera osterara bat egingo du, baina beste denboraldi osoa Parisen beteko du. Urtarrilaren 25ean Trocaderoko Gizonaren Museoa hitzaldi bat eman zuen gai

honetaz: **Laneko kantuak Euskal Herrian**. Eta hitzaldi honen ardura kenduta, Polifoniaren Historia prestatzen hasi zen. Otsailaren 2an, Nazioarteko Dantzen Artxiboan kontzertu bat eman zuen, bere euskal lanak azalduz, goizeko hamaiketean. Pariseko zereginak amaitu ondoren, berriz itzuli zen Toulousera Ekainaren 11an. Baina komentua errefuxiatuz betarik omen zen eta Probintzi buruaren gomendioz Mont-de-Marsan-eko Komentura joan beharrean aurkitu zen, erbestearen hirugarren aldiari hasera emanez.

Euskal Herritik gero eta hurbilago zegoen Aita Donostia Landetako hiriburu honetan eta hemen beteko zuen urte betean sarriago etorriko zen Iparraldeko bere herrirantz. 1940.eko Ekainaren 17an ostatu zen Mont-de-Marsan-eko Kaputxinoen Komentuan eta hiru egun barru, Ekainaren 20an, Baiona, Donibane eta Azkainerako bidea hartu zuen, senideekin egotalditxo bat eginez. Uztailaren 12an berriz zegoen Mont-de-Marsan-en, baina 15 egun komentuan egin ondoren berriz itzuli zen Azkainera Uztailaren 29an. Esan dezakeguna da garai honetan, nahiz eta bere egoitza ofiziala Mont-de-Marsan izan, denbora gehiago bota zuela Euskal Herrian. Parisera 1940.eko Abuztuaren azken egunetan egindako bidaiatik aparte, beste guztiak bere herrirantz egin zituen, azkenean, 1941.eko maiatzaren 14an Baionara bere egoitza aldatu arte.

Ia urte bi bete zituen Baionan, erbestetik Lekarotzera 1943.eko Apirilaren lehen itzuli arte. Laugarren egotaldi honetan ama hil zitzaion Donostian 1942ko San Jose egunean, martxoaren 19an hain zuzen. Zaila zen benetan erbestetuarentzat mugaz honutz etortzeko baimena lortzea eta Aita Donostiak ezin izan zuen baimen hori lortu hurrengo egunerarte; baina ama bizirik ez bazuen ikusi ere, hiletetarako heldu zitzaion semea. Baionan bizi zelarik, Miarritzeko Saint-Charles elizan organularia izan zen eta musikarako eman zituen bere ordurik onenak. Gelasio Aranburu adiskidearekin batera **Sine Nomine Korala** sortu zuen eta konposaketari ere eman zion astia.

Berrogeita hamazazpi urte zituelarik bukatu zuen Aita Donostiak zazpi urteko desterrua. 1943.eko Apirilaren lehen egunean iritsi zen Lekarotzeko komentura. Heldu berria zen eta laister bidali zuten Barcelonara, berak hain maite zituen musikazko ikerketetara, Musikologiazko Institutu sortu berrira hain zuzen. Erbestetik etorrira, lan eder bat burutzea iruditu zitzaion, eta bere biziaren amaiera hurbil zegoelako edo, **Missa pro Defunctis** lau ahots eta organurako bukatu zuen 1945ean. Ez zen ez geldu egotekoa Aita Donostia. Eta aholku bat ematekotan, hara zer idatzi zion Aita Jose Domingori, Carmonako espetxetik etorri berriari: “Ekin, ekin; hitz gutxi eta lan gogor; hori da zuzena”. Izatez hau izan zen praile ibiltari honen lema edo ikurra, Euskaltzaindiarena hain zuzen: Ekin eta jarrai.